

ZARRA

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

279n. zenbakia
abendua 2002



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



UROLA IBAIAREN GOI-ALDEAN (GUPUZKOA'N) BURDIN-OLAK UGARI

- LEGAZPIAS ORTERRI.
 - Lenengo aizoleak mendietan
 - Gero errokondoan ur-oleak
 - Gero baserriko lanabesak
(Patrizio Etxebarria)
- Gure langintza Zarra!

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



2002-2003 IKASTURTEA

OGEI TA AMABOSGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 125 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 7AN

35² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 125 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 7 DE OCTUBRE

LEINUAK ETA ERRIAK

Erriak apurka osotzen joan dira edestian eta asieran leiñuak edo sendi zabalak izan ziranak zergaitik edo agaitik alkartu egin ziran eta erri aundi eta sendo bat sortu.

Esaterako, arabiarrek an euren errietan bizi ziran eta Ala'ren izenean Mahoma'k berba egin eutsenean, batu egin ziran eta orduan ezaguna zan mundu osoan bildurra zabaldu eban erri sendo eta jakituna osotu eben.

Gu euskaldunok be, Erroma'tarrak ona urreratu baiño lenago, leiñu edo sendi zabaletan bizi giñan eta eurak be orrelan ikusi ginduezan. Lau leiñu agertzen dabez: Ner-bion errekearen sartalderantz autrigoiak, Ibaizabal be esaten jakon erreka orretatik Deba erre kara Karistioak, Deba ibaitik Bidasoa'ra barduloak eta ortik iparralde-rantz baskoiak (oneik gaur Laburdi, Benabarra eta Zube-roa'n bizi diranak dira).

Leiñu oneik barru-bizitza sendoa ta demokratikoa euken, etxeko jauna oñarri dala eta batzarretan erabagiak artzen ebezala, baiña, zori txarrez or geratu ziran, iñok ez ebazan bultzatu erri baten erakunde politikoa artzera. Zazpi laterri txiki izatean geratu ziran.

Baiña, ai ene! erri txikiak arriskura sartu ziran, ingu-ruko erri aundiak gertu egozan olako erri txikiak iruntzu-teko, batez be geroago sortu ziran Frantzia ta España.

Batzutan guda eginda, esaterako Naparroa'n, beste batzutan ezkontzaren bidez, esaterako Bizkaia ta Be-naparroa, beste batzutan itun baten bidez, Gipuzkoa ta Araba, inguruko erri aundi orreik iruntzi gura izan gaitue eta gaur be asmo orretan jarraitzen dabe.

Gure edestia ortik begiratuta, ori da izan be benetako edestia, laster onartzen da Ibarretxe Lendakariaren eson-dapena: Lenago izan gendun askatasuna lortu, lenengo Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba'rentzat eta gero itunen bidez Euskalerrri osoa barriro sortzera jo, eskualde bakoitxak nai dauan askatasun-mailla lortzen dauala.

Baiña gure edestia ez dabe ikasi España'tarrak eta Frantzia'rrak. Guk eurak beartuta ikasi gendun, baiña eurak gurea ezelan be ez. Orregaitik ez da errez alkar ulertzea, baiña bidea bakarra da.

Elduko al gara laster eldu bear dogun maillara edo tokira.

OLAZAR'tar Martin'ek.

ZORIONTSUA IZATEKO BESTE
BATZUK IRAINTZEN DAUZANA,
ONEIK BE ZORIONTASUNAREN
BILLA DABELTZANEAN, ORI EZ DA
SEKULA IZANGO ZORIONEKOA.
BUDA'K

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (amazortzi euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbb'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be ida-tzi bear.
Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

BIZKAIKO EUSKEREA ZUZENTZEN

BIZIA/BIZITZA

Zein izkuntza ete da aberatsagoa, euskerea ala gaztelerea?

Itaun oneri ezin leikio emon erantzunik. Gauza edo arlo batzutan euskerea da aberatsagoa, esaterako euske-
rearen atzizkiak askoz geiago dira gaztelerearen izen-
aurre edo preposiziñoak baiño. Esaterako, erderazko
"de"ren orde atzizki asko dagoz.

Sendi arloan euskereak izen geiago daukaz gaztele-
reak baiño...

Gaur aztertu daigun erderazko "vida" itza.

Itz bakar onek gaztelerez adierazpen bi daukaz: "perdió la
vida después de una vida larga". Txarto euskeratuta legoke:
"Bizitza luze baten ondoren galdu eban bizitza". Eta ondo:
"Bizitza luze baten ondoren galdu eban bizia".

Eta "vida" bi orreik erabilteko ona emen araua: "Bizi-
tza" urteetan igaroten dan bizi-aldia da eta "bizia", barru-
ko indar berezi N.A.

UREZ BETERIK

"Bete edo beterik" itzak mugatzaille bako betegarria
eskutzen dau.

Ez dago ondo "ontzi ori uraz bete egizue". Eta erdera-
kada bat izango litzake "Ontzi ori uragaz bete egizue".
Ondo legoke, ostera, "ontzi ori urez bete egizue".

Uts au naikoa sarritan egiten da eta kontuan artu-bea-
rreko gauzea da zuzen itz egin gura ba dogu.

"IZAN"EN EGOZKIZUNA

Mugatzaillea erabillikeran euskereak ta gaztelereak ez
dauke jokabide bardiña. Noiz erabilli jakiteko gramatika-
ko arauak baiño ziurragoa da erriak zelan erabilten dauan
begiratzea. Zori txarrez eskualde guztietan ez da bardin
erabilten, baiña bide bat bada.

Liturjian erri-izkuntzak sartu ziranean, baten batek
arrentza euskeratu eban, baiña mugatzaillea erderan lez
erabillita. Gure belarrientzat mingarria zan. Mugatzaillea
ipiñi egin bear izan jakon eta gaur onelan erabilten da: Ez
"Autorleen erregin". Bai "Autorleen erregiña".

"Izan" aditzaren egokizuna danean be gaztelereak ez
daroa mugatzailerik baiña euskereak bai. Ez: "Kepa on
da" erderaz "Pedro es bueno" izan arren. Bai: "Kepa ona
da" eta erderaz "Pedro es el bueno" izango litzake.

Ez dauke joskera bardiña izkuntza biak. Ikusten da.

NEBA-ARREBAKIANAI-ARREBAK

Beste leku baten esan dogu sendi-giroko izenak geia-
go dirala euskeraz gazteleran baiño. Eta an aitak/gurasoak
itz bikotea aztertu gendun. Orain sendiko beste itz bikote
bat aztertuko dogu: "Anai-arrebak/neba-arrebak".

Itzaldi bat asten danean esaten diran berbak dira. Orre-
gaitik zuzen dagozan ala ez jakiteko, itz egiten dauana nor
dan artu bear da kontuan: Gizonezko batek itz egiten
dauanean, "anai-arrebok" esango dau, baiña andrazko bat
danean? "Neba-aiztok" izan bear leuke, baiña au ez da
iñoz entzuten, bear ba'da orain-arte andrazkoak gitxitan
berba egin dabelako erri-aurrean. Baiña beste batzutan
norberaganako begirada barik egiten da berba, eta orduan
"neba-arrebak" esan bear da, esaterako "guztioak gara
gizakiak eta geure artean neba-arrebak". Itzaldietan "Jaun
Andreok" be erabilten da.

Gaztelerez beti esaten da "hermanos". Nondik dator
ba, euskerearen ugaritasun au? Gure sendi-izenak geiago
diralako. Erderazko "hermano" esateko itz bi daukaguz:
"nebea" neskearen aldetik eta "anaia" mutillaren aldetik.
Eta askorengoa erabilten dogunean erderazko "herma-
nos" izan leiteke "nebak" neskeak ba'diño, "anaiak"
mutillak ba'diño edo bietarikoak ba'dagoz taldean, muti-
llak "anai-arrebak" esango dau eta neskeak "aizta-nebak"
(esan dogu au ez dala entzuten).

Dana erreztuteko bide bat dago: Erderazko "herma-
nos" erabilten dan lekuan euskeraz "senideok" erabilli.

GIZONAKIGIZAKIAK

Idazleak beti izaten dauz zalantzak bere idazkerea
zuzena ete dan ala ez. Eta euskeraz zalantza oneik sarri-
gotan etorten dira. Auxe da gaur aztertuko doguna: Erde-
raz au esan lei: "Los hombres llevan viviendo sobre la tie-
rra dos millones de años". Erderazko "los hombres" ori ez
da zuzena. Guk itaun au egin geinke: ¿Y las mujeres?.
Baiña oraintsura arte erderaz "los hombres" esanda or
sartzen ziran emakumeak. Orain asi dira zalantzak euki-
ten eurak be.

Euskeraz esaten ba'dot: "Gizonak lur-gaiñean milloi
bi urte daroaz" "gizonak" itz ori ez dala egokia datort
burura. "Andra-gizonak" izan bear leuke. Ala "gizak"?
Gizak manku geratzen da. Ala "gizakiak"? Itz onek be
nekez artzen dauz andrak, naizta gizonak baiño obea izan.
Ala "gizon-emakumeak"? Au ez. Au luzeegia da eta gai-
ñera "emakumeak" itza be ez da egokia: Gizonak be
"emakumeak", emearen umeak dira.

Aukera bat artu bear da eta nik gizonezkoak eta andrazkoak batera artzeko "gizakia" aukeratuko neuke eta onelan geratuko litzake esaldi osoa: "Gizakiak lur-gaiñean dirala, milloi bi urte dira".

IL/ERAIL

Euskereak atzizki edo sufijo asko dauko, orretan oso aberatza da, erderea baiño aberatsagoa, baiña aurrizki edo prefijoz, erderea da aberatsagoa. Euskereak oso gitxi ditu, bi edo iru. Baiña euskereak tartizkiak edo infijoak be badaukoz eta onein artean adizkia da bat: -ra-. Tartizki au aditzaren barruan sartzen da eta esangura barria damotso. Esaterako: Egin/eragin, joan/eroan, ekarri/erakarri, ibilli/erabilli, ikusi/erakutsi, ikasi/irakatsi... Oneitariko bat

dakargu oraingo onetan, gitxi erabilten dan arren asko erabilli bearrekoa: Il/erail.

"il" aditza igarokorra naiz igarokaitza izan leiteke: "Gizona il da", "katua il dot". Baiña erderazko "matar" esateko ez daukagu euskeraz itz egokirik, au be il esaten da: "Oillo bi ii dodaz" edo "Bikotxak torre-etxeetan 6.000 il dabez" naiz "6.000 il dauz Bin Laden'ek".

Au da nik gaur egingo neuken esondapena: "il" beti erabilli "morir" naiz "matar" esateko, baiña beste notin bat ilten danean beti esan "erail": "Ipar-Ameriketan giza-kiak tximist-indarrezko aurkian erailten dabez" edo "gudan arerioak erailten dira" edo "Kepak beronen anaia erail dau". "Erail" itz au egokiena litzake "asesinar" edo "ajusticiar" esateko.

Olaza' tar Martínék

OTO ETA POTOTO

- Goi-maillako euskaldunak, goi-maillako liburu eta Istorio-mistorioak topatuko dabez. Orretarako badozak Euskalerra'n gizon prestuak; neuk, ordea, erri xeeari begitzen dautsot gaur.

—Erri xeeak ez dau Euskera'rik salbatuko.

—Ez dakit emendik aurrera zer gertatuko dan: orain arte erri orrek eutsi deutso bizirik Euskera'ri. Latiñak badauz goi—maillako libururik asko; baña erriari latiña aaztu zitzaion egun aretan il zan latiña... Arrezkero ilda dago.

—Ori ez dok berdin.

—Erromatarrek Euskalerra'ra eldu ziranean latiñez berba egiten eben eta euskaldunek euskeraz. Onek ez eben goi—kulturarik; aiek. bai. Kultura gabeek eutsi diote beuren izkerari eta kulturadunek, ez.

—Bañan, or ez dago arrazoi—biderik.

—Zergaitik gertatu dan ez dakigu; baña, gertatu zan... eta ba'dan ez ba'dan be... Gañera ez al degu ao betez esaten Euskalerra kulturatu egin bear dala?

—Bai.

—Ba, alfabetatze orretan lagundu nai deusot erriari: euskeraz irakurtzen laguntzeko bide ordeka, errexka, eta barregarria eskeiñita. Bide xeea eta umilla erria berbara bezelakoa. Lengo batean Deba'ko ikastolan gertatua esango deutzut.

—Zer?

—Irakurtzen ote zekien jakin nairik, erderazko periodiko bat eskeñi eutson Idoia'ri Urlia jaunak. Begiratu bat emon periodikoari eta begiak jasota, onela dio Idoia'k: "Nik irakurtzen badakit; baña, leetzen, ez dakit".

Orra gaurko egunean (1968) euskaldunekin pasatzen dana: leetzen badakite; baña, irakurtzen ez. Istorio—mistorio auekin euskaldun bateri irakurtzen erakutsiko ba'nio, pozik negoke, eta neke apurrok ontzat pozik emango neuzke.

Orra dana esan.

EUSKERAREN ZAILTASUNA.

Istorio—mistorio auek asterako esan dezagun Euskera ikastea ez dala lan erreza; baña, gauza asko daude mundu onetan errezak ez diranak eta gaitzak eta zaillak izan arren, lan egin ezkeru, lortzen diranak.

Euskera be lortuko dogu saiatu ezkeru. Deba'ko Baltxola zaarrak esaten ebana: "El que saiatu coje pez; el que no saiatu, batere ez".

Baña, saiatu oneri buruz, ara Oto kontu—kontari:

Bein batean, bi anai eta arreba bat bizi ziran guraso barik. Iru gauza arrigarrien jabe egin nai zuten:

Izketan zekien txoria

EUSKERA

Zugaitz abeslaria

Urrea darion iturria.

Oien billa anai zaarrenak, zaldun, urtengo eban lenen. Aurretik, ordea, ezpata bat itxi eban etxean, onela esanaz:

Ezpata odolez gorritzen ba da, txarto nagoen seiñalea.

—Eta, orduan zer egingo dogu?

—Neure billa urten.

Iru aste pasa ebazan bidean. Arbola batean azpian, bere bizar zuriak lurreraño ebazala, gizon zaar bat billatu eban:

—Badakit nora zoiazen. (Esan eutson agureak zaldunari).

—Bai?

— Bai. Artun pelota au eta bota lurrera zeure aurrean eta berak eramango zaitu mendi baten oiñetara. Mendi orren gaillun¹ean dozuz izketan dakien txoriak: berak esango dautzu nun dagozen arbola eta iturria.

—Ori bakarrik?

—Aldatz gora asten zeranean, añenka eta biraoka asiko dira aldamen bietatik, berba bildurgarriak esaten, edo, itz goxo biguñak bertan geldi zaitezzen. Ez kasorik egin; galduko ziñake. Ez aldamentara begiratu. Ez galditu bidean eta segi aurrera etenik gabe.

—Zergaitik?

—Berton arri—beltz biurtuko ziñake.

Eskerrak agureari emonda, abiatu zan aurrera geure mutilla. Gertakizunak agureak esandako modura izan ziran: aldatz—gora astean, ango zalaparta eta maldizioa...! Lenengoz ez eutsoen jaramonik egin; baña, ainbeste okerkeri entzunda, aizkenerako zintzurreraño bete zan eta erantzuna ematearekin batera arri beltz geratu zan kamiño basterrean.

Arri beltz! Bazegoen makiña bat bi aldetan!

Etxean ezpata odolez gorritu zan.

Anai bigarrenak, zaldia artun eta irten dau bideetara, zaarren arrastoan. Aurkitu eban agure zaarra arbola-pean be. Onek pelota eskaiñi eutson. Aldatz—goran entzungor izateko... Baietz, batietz...!

Eldu da mendira.

Lenengo ekin—aldian, mendi—erdia arrapatu eban ezker—ezkubitik etozen berbetari entzun—gor eginda. Bañan... ainbeste astakeri entzunda, asarretu zitzaion biziro bere barru osoa... Pazintzia gastau eta erantzuna ematera doiala, arri—beltz biurtu. Arri—beltz...!

Etxean ezpata odolez gorritu berriro.

Anaien soiñekoak jantzi, zaldia artun eta badoia arreba gaztea nebaen billa... Bide luzeak... Agure zaarra... Pelota... Mendia... Maldizioak... Arri beltzak bide bazterretan... Arri beltz biurtuko ote da arrebatxoa, be...?

Maldan—gora asterako, belarriak gogortzeko, argizariakin bete ditu. Goruntz asi danean, ekaitza berarekin batera joian. Ango berbak...! Ango biraoak...! Ango il—bearrak...! Eun milla garraxi etozen batera belarri ondora.

Eskerrak argizariari! Ez eban ondo ezerbe entzuten eta aldamentako arri—beltzei ez eutsen so egiten, begiratu be ez. Zuzen—zuzen doia goraka eta gallurrean ebazan begiak. An goian txori iztuna eukan zai eta bera naikoa.

Ekin da jarraitu, eldu da gain—gañera.

Kaiola bat begien aurrean.

Txori kantaria, barruan.

Kaiolara gerturatu danean, asi da txoria añenka eta maldizioa:

Ez gerturatu! Ilko zaitut! Ez artu kaiolarik! Ilko zaitut!

Geure nezkatoak belarriak itxita eukazan eta ez eban ezer entzuten. Eskua luzatu eta kaiolari eldu deutso. Bat—batean ixildu zan txoria. Ixildu, baretu eta bigundu.

Onela esan eutson txoriak neskatxari:

—Goiazen bide onetatik eta nik erakutsiko dotzut zugaitz abeslaria eta urea darion iturria...

Iturriaren ur—tanta batzuekin arri—beltzetan gizasemeak sortu ziran eta bere anai zaarragoak be bai.

Nebak baño zuurrago eta jakintsuago jokatu eban arrebatxo gazteenak. Eskerrak belarrietako argizariari!

Izlaria ixildu da; bañan ez ipuiari bere amaiera eman barik:

—Goraiño eldu nai dozu? Bearrezkoa da belarrietan argizaria imintzea aldamentako esanen kasorik ez egiteko.

—Eta, euskera ikastearekin zer—ikusidau ipuin orrek?

Euskerak be beure zailtasunak dauz eta elburura begiratu bear da: gallurrean dago gure zai. Bañan, aldamentan, aldatz—goran zoazela, edukiko dozuz zeñek esan: Baña, euskera zertarako, ez bait du ezertako balio? Oba inglesa ikastea. Euskera ikasi eziña da, zertarako alperrik lan egin? Ilko ba'litz oba... Oiek guztiak esanda dagoz eta geiago ere bai.

ANES LAZKAO'KO

(LEKEITIARRA)

(Deba'n Urtea 1968)

4.- SORTALDEA

Iñoz entzun izan dogu jakintza sortaldetik sartaldera datorrela beti, eguzkiaren bideari jarraituz: India, Txina, Mesopotamia, Persia, Asia Txikia, Grezia, Erroma, Europa, Ameriak...

Ejipto'ko jakintza ta edertia aztertu-ondoren, asi gaitetzen sortaldetik.

4.1. MESOPOTAMIA

Izena grekoak ezarria da eta Errekarte esan gura dau. Lur'alde onen ikuspegiaren basamortu aundiak eta menditsuak agiri dira baiña erreka-ondoetan lur aberatsak be bai. Erreka aundi biak Eufrates eta Tigris dira. Egoaldean lur aretsua dago ia beti urez estalduta. Or bizi izan ziran antxiñako summertarrak, baiña ez neke barik: Lenengo lurra legortu bear izan eben urbide aundiak eginda. Orrelan lur ori emonkor izatea lortu eben. Gero lasai bizi izan ziran baratz eder baten tez. K.a.'ko 4000n. urtean ikasi eben idazten.

An bizi ziran akadiarrak eta siritarrak be. Onek basamortuko salerosketatik bizi ziran.

K.a.'ko 2700n. urtean artzaiñak agertu jakezan eta asiritarren erri barria sortu eben. Asko geroago etorri jakezan gudaren bidez nagusitu ziran medo ta persi'tarrak.

K.a.'ko 3000n. urtean Ur izan zan uri nagusia (ortik urten zan Abraan Jaunaren erria sortzeko) eta orduko bizi-bideak salerosketa eta lurgintza ziran.

K.a.'ko 2500n. urtean Sargon da errege ospetsua: Bizartsua, lurralde osoko agintaria... "munduaren lau zatietako erregea" dala esaten dau berak.

K.a.'ko 2000n. urtean Hammurabi dogu errege eta onek lan aundia egin eban jakintza-arloan, baiña K.a.'ko 1750n. urtean jausi zan aginterri au eta gero, garrantzi gitxiago dauken ititak eta iksoak etorri ziran.

K.a.'ko 1170n. urtera arte jakingarri gitxi daukagu, koseotarrak dagoz agintzen eta 500 urte igaroten dabez isillik, arik eta Ejipto goratu arte.

Lurralde onen ipar-aldean dago Assur menditsua ta legorra, artzaiñen lurra, Babilonia'tarren menpean bizi ziran milla urtean eta K.a.'ko 1420n. urtean askatasuna lortu eben eta uriburua Ninibe'n ezarri. K.a.'ko 1300n. urtean oneik dira nagusi Salmanasar buru dala.

K.a.'ko 1240n. urtean aginterria Persia'ra doa eta oneik fenizitarren uri aundiak ziran Biblos eta Sidon menperatzen dabez. Emen agertzen da Semiramis erregeña ospetsua.


II Sargon'ek sendotzen dau erreñua eta onen semea dan Sennakerib'ek menperatu eban Jerusalem eta Jaunaren erri osoa, Biblian agertzen dan lez.

Asarhadon dator gero (K.a.'tik 180-669 urteetan). Assurbanipal ospetsuak ortik laster jakituria indartu eban

oltxuetan 20.000 idazki dituala. K.a.'ko 626n. urtean ilzan (auxe da munduan izan dan gizaldirik aberatsena jakintza-arloan).

Gero dator Blesazar, Bibliak Baltasar deritxona. Ziro erregea bere menpean eukan baiña onek guda irabazi eutson K.a.'ko 539n. urtean eta orrelan asten dira agintzen Pertsia'tarrak, laster esango dogun lez.

Mesopotamia'ko edertia, summer'tarrak asita, gogoangarria da: Idazketa emen sortu zan, zi edo "kuña" antzeko izkiakaz, baiña aurreragokoa zan irudien bidez idazten zan jeroiiiñoa. Buztiñezko oltxuetan idazten eben ortz bategaz. Lenengoak K.a.'ko 3300n. urtekoak dira, baiña K.a.'ko 4000n. urtean ba-ekien idazten.



Olakoa zan zi edo "kuña" z osotutuko idazkerea (La. "tik V gizaldiaren aurretik" Jeroglifiko "_idazten zana.

Izarren barria ondo ekien eta 365 eguneko urtea eukun, astea 7 egunekoa zala. Ori artu eban Julio Kaiser'ek eta gero Gregorio aita Santuak apur bat aldatu bear izan eban. Orrelan gaurko egutegia dogu.

Medikutzan oso aurreratuak ziran.

Matematiketan be oso aurreratuak eta zenbaketarako oin lez 60'a artu eben, guk 10 daukagun lez, euskeraz 20.

Danean dagoz Ejiptoarrak baiña aurrerago.

Gramatika ta elertia edo literatura be ondo eratu ebezan eta sarritan Juda'tarren erlejiñoaren iturri be eurak dira: Uriola aundia (Gilgames'en poema) beste poema asko, otoitz ederrak eta abar.

Erlejiño-arloan, erri asko nastau ziran lez, jainko asko daukez, Marduk nagusi dala, Istar...

Irudigintzan, aurrez-aurre agertzen dabez irudi legorrak.

Etxegintzan zoi-erreak artzen-dabez gai lez eta gaiña biribilla, arkuak. Orra aundiak eta age barik. Onenak jau-regiak dira: areto aundiakaz, torre aundiak, be-barru nasaiak...

EDERTIA

Lanik ezagunena giza-itxurako edo "antropomorfo" diran egodun zezenak, baita zigurat itxurako torreak eta "reliebe" ederrak .



Akaditarren edert,ak dallan ezaugarririk onena, artulezko jantziagaz

4.2. PERSIA.

Errekarte edo Mesopotamia'ren sortaldean Iran goizelai aundia dago. Indu-kutsh mendiz inguratuta. Basa-mortu aundian on-une edo oasisak agiri dira, baita ibar txiki emonkorrak be. Toki oneitan dagoz emengo biztanleak.


Medo ta persiatarrek kokatu ziran or K.a.'ko 2000n. urtean. Oneik ibiltariak ziran, lurraldea aldatu egiten eben. Ez ziran ba lur-langilleak. Iparraldean bizi ziran Medoak eta egoaldean persiarrak. Milla urtean ez eben bizi baiño besterik egin eta oso basatiak izan ziran.

Oneik euren buruari "ario" izena ezarten eutsen eta ez ziran Sem'tarrak. Orrelan ba, eurak izango dira lenengo aginterri Europarra. Ziaxares buru zala Assur eta Ninibe zapuztu ebezan, baiña laster sortu ziran gudak medo ta persiatarren artean eta persiatarrek urten ziran nagusi. Ziro aundia izan zan lenengo erregea K.a.'ko 539n. urtean: Babilonia eskuratu eban eta israeldarra askatasuna emon. Ziro jakintzaz eta erlejiñoz biotz zabaleko erregea zan eta aldi aretako guztiak goratzen dabe. •Kanbises bere semeak Ejipto eskuratu eban. Urrengo euren sendikoa ez dan Dario dator errege eta onek erreñua ondo eratu eban. Gero Xerxes. Satrapak izan ziran jaurtzeko lagun onak.

K.a.'ko 331n. urtean Grezia'ko Alexander Aundiak menperatu eban III Dario eta orrelan Elendarren menpean geratu ziran persiarrak. Laster dator Erroma'ko aginterria.

Erreñu orretan etxe ederrak agiri dira ugari, sarreran giza-itxurako egodun zezen bi dirala. Euren da age berri


bat be: Kapitelean lore idegia dauka, bolutak eta, batez be, pizti bi lepoz bat eginda.



Persitarren ederti

— Ezaugarria, agea, gaiñean kapitela, pizti bi lepoz bat dirala.

Illobiak be ederrak daukez, esaterako Ziro'rena. Auxe da zarrena: Mailla batzun gaiñean dago arrizko illobia. Gaiñera euren arrizko illobietan piztiak ugari dagoz eta giza-irudi ederrak be bai.



Persitarrak illobi ederrak egin ebezaz, arrizkoak au da zara "ren illobia lau Inclinaren gainean

Erlejiño-arloan asieran bizia gurtzen eben, animistak ziran, baiña K.a.'ko V gizaldian Zaratustra agertu zan. Au asieran aztia zan baiña gero mazdeismoa aldarrikatu eban: Jainko bakarra, Zenda-Besta, Arhiman deritxon txarraren egilegaz burrukan. Oitura-arloan oso garbiak dira.

Olazar'tar Martin

BARRIALDIA (MODERNIDAD) 2:.- JOPUAK EDO MORROIAK

ENTZIKLOPEDIA

Barri-aldiaren sorlekua da Entziklopedia edo Ikasbi-dea, lan aundia (1751-1752).

Liburu moltso onen elburua, jakingai guztiak eratzea zan.

Argitaratzeko orduan gorabera aundiak izan ziran, baiña ez doguz emen aitatu.

Idazleak bat baiño geiago diranean beti jazoten dan lez, ez da uste izan bear batek diñoana guztiak izenpetzen dabela, baiña guztiak ezartzen jakena da ekonomiaren menpean dagoala politikoa.: Dana izan bear da aberastuteko bidea eta aurrerapena ez da besterik diru asko lortzeko bidea baiño.

Sarreran D'Alambert 'ek diñoana da, bere aldiko asma-tzaileak eta mekanikalariak ez dabela ezer balio, baiña gaur esan geinkio aberastutea baiño besterik ez dabela nai eta euren eritxi orren ondorena dala gure egun oneitan York Barrian jazo dan torre bikoitzen jazokizun negargaria: Txiroen izenean aberatsai ezarri jaken ondamendia. Eritxi orreitatik sortu da Irugarren mundu txiroa, gosea, gaisoak eta abar.

+++

JOPUTZA EDO MORROITZA

V alean Chebalier 'ek izenpetzen dau joputza edo morroitzari edo esklabuak dagokien lana.

Lenengo morroitzaren edestia dakar, bigarren joputzari buruz etika edo oitura arloko azterketa egiten dau. Orain arte dena da oso egokia: gizaki guztiak aske jaiok dira eta morroitzak giza eskubideen aurka dago (eriotzara-ko epaia onartzen dau eta orren ordean joputza be bai): "Basatiak baiño ez dabez artzen esklabuak euren dan ondasun bat lez_" "Joputza lotsagarria da jabearentzat eta zapalduta geratzen dan gizadiarentzat".

Dana ondo! Ederto esana!

+++

MORROITZA TA ETIKA

Urrengo ataltxuan, ori dana aitzuta egiten dau berba idazleak: Lenengo European morroiak zelak dagozan agertzen dau baiña ez dau morroitzak txartzat artzen etika alde-tik.

XI atalean dago "Baltzak" deritxon ataltxua. M. Le Roman'ek idatzia eta diño morroitzak zapalkuntza dala zuriak morroi diranean, baiña ez da zapalkuntza baltzak geure menpera sartzen diranean. Orra or aldi barrietako norberekeria, benetan jatorrizko pekatua, euren eritxi guztiak zikitzen dituana: Etika ez da bardaña gutzat eta baltzentzat.

+++

BALTZAK ZELAKOAK DIRAN

Baltzak zelakoan diran eta zergaitik diran baltzak agertu ondoren, olako irakatsiak dakaz: Europatarrak antxiñatik dauke irabazpidea morroi baltzen salerosketan, Afrika'tik baltzak atera eta Ameriketara eroanda.

Salerosketa ori ez da ain txarra: Baltzak askatasuna galtzen dabe baiña euren arimak salbatzen dabez, kristiñau biurtzen diralako eta gaiñera azukerea, tabakoa ta ola-koak lantzen ikasten dabe. Orregaitik, gizatasunaren aurka dagoala uste izan arren, piztien antzera salduak izan arren, lurak lantzen dabez.

Begiratu ondo eritxi orren barruan zer datorren: Euro-parrak dira ori egiten dabenak; salerosketa ori ez da zuzena, ez gizatia, baiña gu aberastuteko bear dogu ori, baita eurak kristiñau egiteko be. (Zelan esan daikee ori kristiñauak ez diran. Aldi-Barri-zaleak?Ez ote da ori simonia kondenagarria?) Guzurtiak dira eta Eleizea onuratu egiten dabe:

+++

FEDEA ZUENTZAT, ONDASUNAK GUTZAT

Antxiña esan eban Las Casas'ek fines de Sepulbe-da'ren aurka: "Ez da askatasuna emon bear kristiñau iza-tearen truke!"

JAKINTZA

Baiña Barri-aldiko oneik emen be norberekeriari jarraitzen dautsoe, euren betiko obenari.



NORTZUK EROSLE?

Ba-dakigu, diño, nortzuk egiten daben morroien salerosketa au: Sartaldeko Indietan (Ameriketari) lurraldeak daukezan laterri guztiak: Frantze'tarrak, Anglandarrak, Portugaldarrak, Olandarrak, Suediatarrak eta Danesak.

España'tarrak daukez an lurrik geienak, baiña oneik ez dabez ateraten morroiak Afrika'tik, beste laterri batsui erosten dautsez baltz oneik.



MORROIAK ZELAN LORTU ETA NORAKO:


Baltz batzuk goseak beartuta salduak izaten dira, beste batzuk gudan atxillotuak (guda oneik Europa'tarrak egiten dabez baltzen artean), beste batzuk erosi egiten dira saltzeko (trata de esclavos), iñoz gurasoak saltzen dabez euren seme- al abak edo alderantziz.

Eskuratu diran jopuak ainbat lasterren eroaten dabez itxasoz, lurrean goibeldu (tristetu) ez daitezaz. Itxasoan asko gaisotu eta il be egiten dira, euren buruak il be bai (jatea ta edatean itzita, arnasea artzea itzita, uretara euren buruak botata).

Ugarteren batera eltzen diranean, bakoitza 300'etik 600 liberara saltzen dira eta gero, lurralde beroak diran lez, ugaritu egiten dira. Asko dira morroi jaiok.

Pekatu ikaragarri onegaitik ez da sekula damutu Europa, ez dau iñoz parkamenik eskatu, ez dau ezer emon kalte-orde, baiña baltzak judatarren bestean ziran giza-

kiak eta, Hitler'en esanetan errubakoak gaiñera. Gure egunetan alkartu dira baltzak eta islandiarrak eta zurien aurka dakarren gudea ikaragarria da. Barrero gogoratu torre bikoitzak (Jemelak). Au da olokausto-ordea!!




LANERA

Ameriketara eltzen ziranean, atsedena-aldia emoten jaken eta lendik an egozanakaz artu-emon gozoa izaten eben.

XIII Luis'ek salerosketa orretarako baimena emon eban, baltz orreik kristiñau biurtzekotan: Orra or eulia alboratu eta ganbelua jatea.

Lan egin nai ez ebenai zigorrak ezartzen jakezan eta "zigorraren kode" bat be egin eben.



JABETZA

Etika bako ekonomia da jakitun oneina eta jabetzari buruz euren eritxia agertzen da XIII alean: Bidez norberagandu dana norberarena da eta ez dauko iñori laguntzeko egin-bearrik, ezelako muga barik da norberarena. Erregeak be ez dauko eskubiderik olako ondasuna kentzeko eta legeak jabetza ori aldeztu bear dabe.

Jabetza ori zaintzeko alkarteak (S.A.) sortu bear dira.

Oiñarri txarrak mundu barri baterako.

Olazar tar Martin'ek



ALDI ZKARI ONEK
BIZKAI KO FORU-ALDUNDI AREN
DI RU-LANGUNTZA JASO DAU

ARRANTZALEEN ITZAK

IZTEGIA ABERASTEN

Iztegia aberastu egiten da arlo guztietako berbak batu-ta. Ori da batuaren benetako bide aberasgarria. Baiña zori txarrez, kulturak aldatu egiten dira eta barruan daroazan berbak betiko galdu: Non dagoz euleen itzak? Edo ikazgiñenak? Edo artoa igertzeko labearenak? Edo errotarie-nak? Edo ola-gizonenak? Edo oraintsu estaltzen doan lugin/baserritarrenak? Edo gatzagetako langi lleenak? Edo antxiñako artzaiñenak?

Eskuarteau daukagu gure adiskide ta lankide dogun Anes Arninda'ren lan bat, eskuz idatzita. Ori artuta itz-zerrendea egingo dogu arrantzaleen berbakaz. Berba bakoitxa azaltzen ibilli barik, sarritan erderazkoa ipiñiko dogu alboan. Guk euskerea ta gaztelerea biak dakiguz eta zezetarako balio bear dau orrek.

LANAK ETA SARIAK

Jito/jitua: gabaz egiten dan arrantza sare ta guzti: sar-diñea ta bokarta (antxoa).

Manjin: Itxaspeko sardiña edo bokart-taldea.

Kaxe: kutxa edo arkea.

Kaxarranka: Lekeitio'ko dantzea, kofradiko arka baten gaiñean egiten da.

Maria osodunak: egun osoa (ración) kobraten dabenak.

Maria erdikoa: eguneko erdia kohratzen dabenak.

Orekariak: arraunlariak, geienetan baserrikoak.

Ontziari eutsi egiten dautsoe oreka galdu ez dagian, arraintza egiten dan artean ur-korronteak croan ez dagian.

Partilla: Arrantzan irabazten dana.

Zeru-dirua: Maria osokoak kobratzen dabena.

Urtxakurra: Mariñelai laguntzeko ontzian eroaten zan txakurra: arraiñak arrapau iges doazeneak. Euren saria irabazten eben.

Agin-zorrotza: Atunaren antzeko arraiña.

Ardi-urte=Atun urte: Ardia arkakosoa da.

ARRAIÑAK:

Akula: Aguja.

Albakera: Bonito.

Antxoa.

Arraingorri: Escarcho.

Arrain zuri: Escualo.

Astun: Alacha.

Baloi: Ballena.

Berdel.

Besigu.

Billan: Sollo.

Bokart: Antxoa.

Bota: Arrain gorria, eskuakaz.

Dondari: Bota-antzekoa.

Duerdoi: Durdo.

Ega-labur: Atun goiztan-a, zimarroia.

Ega-luze: Beranduko atuna.

Egatzibi: Jibia.

Galera: Marmota.

Gata: Lija.

Gorroti: Babosa.

Itxas-kabra: Cabracho.

Izurda: Tonino, delfin.

Kaiamu: Gayano.

Kaisparro: Gayano?

Kaisparro aundi: Isabela.

Kardax: Zimarroia.

Kolondrin: Trigla.

Lampreo: Albakora.

Lantes: Berrugate.

Lebatz: Merluza.

Lentoi: Aligote.

Lixa: Lija.

Luia: Julia.

Lupiña: Lubina.

Makallau: Bacalao.

Makon: Cabruza.

Mielgu: Mielgo.

Otazotz: 6m.'ko luzea, eztenagaz.

Marmoka: Marmoca.

Mauts: Atxetako arraiña.

Millu: Atxetako arraiña.

Papardo: Palomita.

Perloi: Perlon.

Platusa: Platija.

Pota: Jibia.

Sabai: Besegu-antzekoa.

Txibi: Jibia.

Tximiñoi: Chipirón.

Txitxarro: Chicharro.

Txitxin: Antxoa txikia.

Txistu: Dorada.

Zarbo: Mujarra.

Zimarro: Cimarrón.

Tontxorro: Ur-gaiñeko antxoa moltzoa.

Baltza: Sardiña-moltzoa.

Bagera: Ur sakonetako arrain-lekua. Maguriyo: Hélice.

Lapa: Lapa.

Txirla: Almeja.

Anperna edo Pertzeba: Percebe.

Ezkira edo izkira: Quisquilla.

Geldu: "Quisquilla" txikia.

Abakando: Langosta.

Txangurru: Centollo.

Aitz-karramarro: Cangrejo de mar.

Olagarro: Pulpo.

EUSKERA

ITXAS-TXORIAK

Antzar: Ganso.

Kopla: Cofre.

Kaio edo Kalatxori: Gaviota.

Karrabaso: Itxasoko belea.

Millagarrika: Itxasoko elaiia edo enara.

Potorro: Atxetako errege-txorria.

Anpor-maixu: Atxetako zuri-baltza.

ITXAS-SORGIÑAK

Beste mutillak: Demonio.

Putz egitekoa: Gato.

Belarri txikiña: Rata.

Pedulen kontrakoak: Sorgiñak (Pedulenak sondak dira eta aurka-koak arrizkoak ziran eta palangreetan Iotzen ziran, "Tretzak", or'elan beraiño eldu daitezana. Lau izen oneik ez ziran sekulan aotan artzen. Orregaitik asmatu ebezan beste gaitz-izen orreik).

TXALOPEN ALDERDIAK:

Branca: aurea edo proa.

Artekunea: Erdi-ingurua.

Popa: atzea edo popea.

Brankan, aterkunean eta popan erretzen zituzten San Pedro bedarrak lau izaki gaizkille orreik alde-erazteko.

Tostak: jesarlekua.

Tosten lekua.

Auretik: Aurre, kontraurre, kontra-buru.

IZTEGIA:

Ballena: Bale. balei, balai, baloi, bali-arrain, lumera, zaiñarrain, lumera, arbanoa, dramuna.

Groelandia'ko bale aundia, bale egaztuna da.

Balearen koipea: Lumera-sain, bale-gantza, bale-lumera, bale-uriña, lumera-saiña.

"**Ballena**": bale-bizar, balopi-kume.

Ballenato: Seria, bale-kume, balea-kume.

Ballenero: Bale-ontzi, balen-ontzi, lumerantrako.

Ballenero: Bale-zale, baloi-zale, balea-zale, lumera-zale, bale-ar'antzale.

TOSTEN IZENAK:

Bermiel, treskoeta kontrakoa.

Txalupa nagusiak: Ur aundietan dabiltzanak, 20 gizon, 12m. luze.

Pinaza: Ontzi luzea, ariña, killa biribilla daukana eta popea laburra malta meakaz, batez be besegutan erabilten dira.

Trainerua: Traiña sarea da, sardinak ekarteko dira, killa laburra dauka, 8 edo 9 m. eta 16 gizon. Patroia.

Baideko: Traiñerua antzekoa da, geien be 6 m.

Lema: Erderazko timón.

Ankillak: Anklak, aingurak.

Arrankillak: Egur eta arriakin egiñak dira aingurak.

Señeru edo talaieru: Itxasoaren egoe-ra ikasi bear dauan gizona.

Atabaka: Botoentzako kutxa.

Gastukelak: Umeai emoten jakezan ogia ta gaztaia.

Eretia: Talaiatik egiten eben siñua.

Narria: Narraz eroateko burdi-antzekoa.

ITXASOARI BURUZKO ESALDIAK:

-Gorri-gorri, aize edo euri.

-Itxas zuri, aize edo euri.

-Euriaren gaiñeko leia (izotza), curiaren deia.

-Enarak goi-goian ara ta ona dabiltzanean, luzaro egualdi ona.

-Antzarrak batera ta bestera dabiltzanean, itxas-antzarrak urperatzen diranean, curia.

-Barikuan (ostiralean) trumoiak ots egiten ba'dau, eurizko bederatzi-urrena.

-Aingeru guardakoaren egunian, eguzkia ikusi baiño, ardi artean otsoa ikusi naiago.

-Eguzkia ta curia, martiko egualdia.

-Mendebala euri barik, ez dago aize obarik.

TXALUPETXEA:

Itxas-ontzi bakoitxak taberna bat eukiten dau parti'llak banatzeko.

Gerriko: Garria lotzeko baltzari esaten jako.

Txamarra, txamarrote: eunezko jakea, idun barik, zerrenda baltzakaz eta ia beti urdin-illuna.

ARRANTZA-TRESNAK:

Tretza: Palangre.

Traiña: Sardiñak batzeko sare biribilla.

Txardango: Traiñari eusteko urkulu txikia.

Ezpeleta: Palu luzeak ontzi-alboetan, atunetarako tramankuluak eukiteko.

Txinbo: Zulatuta dagoan egur biribilduaz, "txepela" arrapatzeko, kor-del bat: metroa dau luze eta lebatza arrapatzeko da.

Txanpel: Lebatza artzeko kordela.

Astra: Ariz edo alambrez egindako lanabesa, lebatzaren edo kongrio edo olakoen amua daroana.

Tuntuxa: Ur gaiñera datorren boia, palangreak bideratzeko.

Koraña: Berunezko lanabes luzeak, amu askogaz.

Karpin: Amua iru edo lau puntagaz, aingura antzera.

Amua: Anzuelo: Txikia.

Katxikamu, pantxoetarakoa; txillamu, besegurakoa; bisigamu; lebatzarako danean lebatzamu: lixetarako lixamu; atunetarako atunamu.

Butroi: Butrino.

Salabardo: Redeñoak edo retelak.

Traolak: Aparexuak batzeko.

Atabaka: Berunak, amuak eta abar gordetzeko kutxa.

Otzara: Otzarea: Atunetarakoa: asto-otzara besiguterakoa; otzara txikia antxoatarako.

Treotzara: Tretzak eukitekoa; dominiña: tapaduna; palangrearentzat.

Belotzara: Oialak eroateko.

Narria: Narraz eroateko burdi-antzekoa.

Dei-egitekoak: Mariñelak itxarteze-ko andreak.

ANES ARRINDA
· M. OLAZAR

ABIZENAK

BERASALUZE: Gipuzkoan dago geien, baiña Bizkaira be sartu da.
"Beratz" edo "baratz" bedartza da eta "-luze" argi dago. (Getaria-1791).

BERAZA: Orozko-aldean agertu da baiña gero Gipuzkoara joan da.
"Baratza" edo "bedartza" esan gura dau. (Bilbao-1673).

BEREZIBAR: Bergaran eta Araban agertzen da. (Bergara-1390).
Baratza edo bedartza dagoan arana esan nai dau.

BEREZIARTUA: Gipuzkoakoa da.
"Beraz" edo "baratz" igartua, legortua esan nai dau. (Bilbao-1826).

BERGARA: Erri ezaguna da Gipuzkoan. Bertan eta inguruetan zabaldu zan abizena baiña gero erbestera be zabaldu da. Batzuk itz onen oiñarriztat "-erga-" artzen dabe, bedar-lekua, beste batzuk jatorriz "Ybergarai" dala diño. (1492).

BERNA: Amorebietan.
"Berro"tik el dator eta "-na" atzikiagaz "bedartza" izan daiteke.

BERNAOLA: Bizkaiko Arratian sortua da. Eskoriatza'n be ba-dago: 1815.
"-ola" k emen ugaritasuna esan nai dau, ez burdin-ola. Eta "berna" bedartzaren antzeko zerbait da.

BERRIO: Orduña-aldean sortua, Bizkaira ta Ameriketara be zabaldu da. (Navas de Tolosa-1212).
"Berri-" sasia edo zugatz txikiak dagozen lekua da.

BETOLAZA: Araban dago erria izen au daukana, baiña abizena Euskalerrian eta Errioxan be ba-dago. (Elgoibar-1602).
"Bet-" beiena esan nai dau eta "Olatza" egonlekua da.

BIDAURAZAGA: Bizkaian ainbat dagoz eta Ameriketara be joan da. (1728).
Jatorriz "Bidaurzaga" ei da eta Fruniz'en ei dau etxea: "Bidortza" izango da.
Berbearen muiña "ida" edo irea da. Aurreko "B-" gero ezarria da, "-tza-" ugaritasuna eta "-aga" k mugatzaillea sendotzen dau eta tokia adierazi. Ordua: "Ira asko dagon tokia".

BIDEGAIN: Gipuzkoan agertua da baiña ba-dagoz Bizkaian be abizen au daukenak.
Esangurea argi dago: "Bide-" eta "-gain", bidea baiño gorago dagon etxea.

BILLELA: Mungian dago abizen au 800n. urtea ezker. Ez dakigu bertan sortua dan ala Palentzian dagoan "Vill-la" eritik artua.
Palentziatik artuak "urixua" adieraziko leuke. Bertokoak, diñoenez, "illa" otea dagon lekua. (Valladolid-1512).

BIZKARGUENAGA: Bizkaian baiño ez dago.
Mendi-ganaren ("bizkar-") "-goiena-" dagon lekua edo an dagon etxea.

BIZKARRA: Bizkairik geienean dago. (Azpeitia-1593).
Mendiaren ganea da bizkarrak eta bat baiño geiago be izan leitekez, "-aga" laburtuta dagoalako.

BLASKO: Lenago Euskalerrria zan Jaka'n agertzen da 915n. urtean.
Belasko'ren laburpena da eta Belasko belearen kumea.

BLAZKEZ: "Blasko" gaz batera doa eta "-ez-" ek gura-soakandiko jatorria esan nai dau. "Belaskoren semea" esan nai dau.

BOLINAGA: Bizkaitik Gipuzkoara eta emendik Logroño ta Burgos'era zabaldu da. (Bilbao-1804).
"Bolu-" edo "Bolin" errotea da eta abizen onek errotea daukan etxea adierazten dau. Ortik Bolintxu.

BORDA: Gipuzkoan geien, Bizkaian be bai.
Ardiak sartzeko basoan dagon korta antzekoa da. (1703).

BORDAGARAI: Mendiaren gaiñean dagoan aberetxea.

BUSTINTZA: Bizkaian eta Gipuzkoan. (1393).
Bustin asko dagon lekua esan nai dau, bustintza baten egindako etxetik dator abizen au.

KAFRANGA: Etxe ospetsua Gamiz'en, age baten urontzi bat dauko kurutzeagaz eta Labairu'k antxiñako bateo ospakizun audiren bate ezaugarri dala diño. Ez dakigu zer esan nai dauan. (1815).

JAUNGOIKOAK USTIATAILLE TA ODOL-XURGATZAILLEI EZ DAUTSE

— ENTZUTEN. —

Jaun areek Jaungoikoagaz ondo egozela uste eben. Otoi asko egin, eleizara sarri joan ta opariak ugari eskeintzen zituelako, eredu zko gizon erlejiosoak zirela uste eben. Baiña igarleak, Jaungoikoaren izenean, agirian, agertuta izten zituan.

Niri zer, diño Jaunak, zuen opari guztiak gaitik. Igoindu egiten nabe. Zuen emaitzak ez jataz atsegin. Nire aurrean agertzen zaranean, eleizaren lotsagarri, era ortako ametsak ekarteko, nor agintzen dautzue... Gauz ez diran emaitzak ekarten, ez egizue jarraitu... Zuen jai aundiak gorrotogarri jataz. Barruan gaiztakeria daroan jairik ezin dot, geiago, jasan. Zuen ibilladiak iguingarri jakoz nire arimari... gorroto ditut. Aspaldian aspertuta nauke.

Garbitu. Garbiagotu zaiteze. Kendu nire aurretik zuen egitada gaiztoak. Jainko izunaren abade batek agintari nagusiaren aurrean, Amos era orretan salatzen dau.

"Amos'ek, Israelgo erriaren aur'ean, zure aurkako burruka sortzen dau... Lurrak ezin ditu iruntzi aren berba guztiak". Au da, politika edo erriketa giroan sartzen dala-ta, salatzen dabe. Ta ori dala-ta, lurralde artatik bota egiten dabe. Orduan Amasias'ek Amos'i auxe esan eutsan: "Zoaz ikusle, iges egizu Judako lurraldera, jan egizu, an, zure ogia, eta egizuz, an, iragarpenak".

Aundikeriak, sarritan. ez dau nai egirik. Arrokeria nas-takerietan dabil, nundik nora, bere maltzurkeriak aurrera atera nairik ederraren itxuraz. Er'iaren alde egiten dan lan ona, sar'itan, era orretan ordaintzen da.

Jaungoikoaren izenean berba egiten dautsencan, erriaren aurka, azpi jokoan, dabilentzat artzen dabe ta euren artetik botateko alegin guztiak egiten ditue. Urte asko geroago Jesus berberagaz, hardin, egiten eben...

Amos'en bidetik joan ziran beste Igarle guztiak.

Esku-artean darabilguzan gai oneik zerbait aztertuko ditugu. Ain egokiak diranez, euren argiaz argi egiten dabe.

Jauna bere erriko buruen aurka, auzitan jarriko da: "Nire lurrak jan ditue ba. Beartsuei ostutako gauzaz, zuen etxek beterik dagoz. Nire erria zapaltzen dozue. Beartsuak jo ta jo zabilte".

Len zintzo ta zuzena izan dan erria, zelan ondatu ta galdu da emagaldu baten antzera. Len zuzena zana, orain iltzailleen etxe biurtu da.

"Itzi egizue gaiztakeria. Ikasi on egiten. Billatu zuzentasuna. Emon bereak zapalduari. Zuzena izan ume-zurtzagaz. Jarri, aurrian, alargunaren alde. Guzti au egin ondoren, zatoze. la orduan bai alkar ondo artuko dogu. Naita zure obenak ikatza langoak izan, edurraz zuri geratuko litzakez".

Jende areek, ar^eiturik, Jaungoikoari galdetzen dautsoe:

"Barau, zergaitik egiten dogu, jaramonik ez dozu egiten da... Guk gure buruak beeratu, ta zu konturatu be ez...".

Jainkoak: "Begira, barau egiten dozuen egunean, zeuen irabazia billatzen dozue eta zeuen serbitzariak estutu egiten dozuez...

Au da nik nai dodan baraua diño Jaunak, bidegabeko kateiak eten, askuntza zapalkorrek ausi, menpean dagozkan askatu, bustarri guztiak kendu, gose danari zure ogitik emon, heartsu aterpe bagekoa zure etxean artu, billo-tsik dagozanak jantzi, zure anaiari ez-ikusirik ez egin, ta abegi onez artu. Orduan egunsentia lez egingo dozu argi, berialaxe etorri jatzun osasunbidea. Orduan dei egingo dautsazu Jaunari ta erantzun egingo dautzu... zuk dei egin, ta emen nago, esango dautzu. Bustarri zigor-kiñu ta irain itzak zugandik, urrin, dagizuezanean, gose danari zeure ogia zatitu, eta beartsuaren urdaila ase dagizunean, zure argiak, illunetan, argi egingo dautse".

"Entzun Israel, erriko printzeak eta buru-zagiak, zuei ez al dagokizue, zuzentasuna zer dan ikastea?"

Atan he, ondo gorroto ta txarra dozue. Erriari narrua kentzen dautsoe ta azur gaiñeko aragia urratuta izten dautsoe. Nire erriaren aragia jaten dabe. Ta azala erauzi, kendu egiten dautsoe. Azurrak apurtzen dautsoez ta lapi-koan sartzen dan aragiaren antzera zatitzen.

"Au egin ondoren, Jaungoikoarengana datoz otoi egitera. Baiña Jaungoikoak ez dautsela jaramonik egingo, ziur, ziur jakiñean egon beitez".

Mikeas igarleak, era onetan, itz egiten eutson Israelgo erriari: Jainkoak bere erri aukeratua gaiztakeritik itzartu ta zurtutea nai eban, bere ondarena ikusirik, baña gizona, beti herekoi, ta ezin onerako esnatu.

Jendearen arpegi bikoiztasunak igarleei barrua, sakon, mindu eutsen. Jendea erri aukeratua zala-ta, eleizkizunak egiten zituala-ta, geiagoko barik, pozik eta alai aurkitzen zan.

Alkartasunerako deituak zirenak, ez zuzentasun argirik, ez anaitasun biderik billatzen ez ziran iñoz aleginduten. Giza irudia, izan bere, sarri izan da munduan larria.

Azalkerizko erlijio siniskera au, egiz, iguingarrien jako Jaungoikoari. Alderdi batetik azal-itxurazko erlijio jokabidea ta aren aurkako bestetik, ta era ontako arpegi biko jokabide maltzurrik. Jaungoikoak ezin dau ez ikusi ta ez onartu. Jaungoikoak ba, bereganako maitasuna ta gizonenganako maitasuna, biak, bat eginik ikusten ditu.

Aldi artako Jaungoikoaren errenkurea, gaurko aldi onetan be. Jaungoikoaren errenkurc izaten darrai: "Erri au aoz urreratzen jat ta ezpaneaz gurtzen nau. Baiña bere biotza nigandik oso ur'in dago".

AIZEA ETA AIDEA

Gazte batek itaundu eustan erderazko "aire" zelan esaten dan euskeraz. Ori argitu-gurean doaz esaldi oneik.

Aizea eta airea ez dira gauza bat, bakotxak bere arloa dauka, gure atean beintzat, bai lantegian, etxean, euskaldunon artean darabilguzan erea kontuan artuta. "Aire" berba onek gureakaz zer-ikusirik ete dauko?

Aize, erderaz "viento" ta "aire" da. Aizea: "el viento"

Aizez bete: aizez naiz arnasaz bete, putzu.

Aizeagaz bete: arnaseagaz bete, "aire"agaz bete.

Aizeagaz putzitu: "inflar de aire, de aliento".

Aizeak putzitu: Aizeak berak egiten dau.

Aizeaz putzitu: putz eginda aizez betetu, "aire"z.

Aize-indar: "presión de aire.

Aizetxu: Airecillo.

Aizea bitartetik sartu: entrar por una rendija el aire.

Aizea bitartetik etorri: llegar el aire por una rendija.

Aizea indarrean sartu: meter aire a presión.

Aizea indarrean egon: hallarse en presión el aire.

(tramankulu baten).

Aize-indarra erabilli: Manejar la fuerza del viento, aprovechar.

Aize otza: aize leitua, izoztua, otza.

Aize-otsa: Aizearen zaratea.

Aize onek umea dauka: zeozer dakar.

Aizeak eroan, aizeak ekarri, aizeak erabilli, aizeak aizeagaz etorri.

Aizeak indarra darabil, aizeak indarra dauko, aizeak aidean erabilli.

Aizea boladan sartu: aizea bitartetik sartu, aizea bueltan ibilli, aizeak bueltaka aizea golpean sartu, aizeak betean bota, aize-golpeak bota.

Bizikleta eta kotxearen txirrinkak aize indarragaz bete, aizeagaz putzitu (inflar con presión de aire la rueda de la bizi o del coche).

Konpresoreko aizea amar kiloko indarrean pareu: Quedarse a diez kilos la presión del aire del compresor.

Konpresora amar kiloko aize-indarrean ipiñi: Poner el compresor a diez kilos de presión.

Alde emendik, aire emendik (erabilten dira): vayase o vete de aquí.

Konpresora amar kiloko aize indarrean egon: Hallarse el compresor a diez kilos de presión de aire.

Txirrinkeari aizea sartu: Meter aire a presión. Inflar las ruedas con aire.

Aize-indarra bai, baiña aide indarra ez. Aideak, zergaitik edo agaitik, mogidu-berra daukolako, eta mogitzen danean aizea da eta ez airea. Aire ori beste gauza bat izango da. Euskerazko eta erderazko "aire" berbak ez dira gauza bardiñak-eta.

* * *

Euskerazko aide eta erderazko aire, gure inguruko euskeran ez dira bat.

Aidean ibilli, aidean egon, aidean geratu, aidean erabilli, aidean eroan, aidean itzi, aidean ekarri, aidean etorri. Aidean zeozer mogidu ezkeri; gauza ori airea dabillelako edo aizeak darabillelako edo aizea dagoalako edo aizez darabillelako izaten da.

* * *

Putz: soplo, soplar, aliento.

Putzitu: inflar, soplar, echar aliento.

Pusige: vejiga: Pusigea aizeagaz bete, inflar la vejiga.

* * *

Ago-atza: mal aliento de boca. Uzkar bat bota, ir en viento, echarse un aire. un viento, un pedo. Uzkarrek, aires, vientos.

* * *

IZTEGIA

Eupetzak bota, eruptos, vientos de boca.

Tripea aundituta euki_ eta uzkarrek botaten asi: con el vientre inflado irse en vientos.

Uzkar-atzak, aires malolientes, uzkar-otsak: sonidos ruidos de pedos.

Askoz geiago be esango neukez "aire" erderazko berbeagaz ezbardintasuna ikusteko baiña uste dot esaneakoak be naikoa dirala.

Jose Mariano Barrenetxea'k

Oarra: Jose Mariano Barrenetxea adiskideak parkatuko daust bere eskuz idatzitako idaz-lan onetan gauza batzuk oker ulertu izatea eta bear ba'da iñoz zertxu-bait aldatu izatea, laburtzeko edo argiago ipinteko. Idaz-lan au egokia da guztiontzat, batez be ikasten dabilzanentzat eta aize-tramankuluakaz lan egiten daben euskaldunentzat. Eskerrik asko Jose Mariano!

Senide: Pariente, familiar. Senideak gara, somos familiares, parientes, hermanos en familia.

Senideak izan: ser familia.

Senide-arteak izan: ser familiares.

Baiña senide ez da edozein kuntzatakkoa "hermano".

Anai: gizonetzkoarena, aizta andrazkoarena, andrazkoarentzat,

Neba: gizonetzkoaren gizonetzkoa,

Arreba: gizonetzkoaren andrazkoa.

Aide: Aire, espacio.

Aidean, en el aire, por el aire, en el espacio.

Aide berbea batzuk erderazko "pariente" esateko erabilten dabe.

Aidean eroan, llevarlo por los aires.

Aidean ibilli, andar por el espacio.

Aidean geratu: flotar en el aire, quedarse en el aire, quedarse en el vacío, en el espacio.

Lenagoko koplak baten esaten da: Orbelak aidez, aidez, ifartxo beroa...

OLAZAR'tar Martin'ek

IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

BILBAO

NI II IA, AIIK IU
LAGUNTZAILE

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

Sariak lau izango dira:

1.^a 300,50 euro.

2.^a 240,40 euro.

3.^a 180,30 euro.

4.^a 120,20 euro.

5.^a 60,10 euro.

Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

UMANDI'ren AGIRI ITZULIA

URRESTARAZU 'TAR ANDONI (UMANDI)'REN AGIRITEGITIK
ARTZEN DOGU GAUR EMEN ARGITARATZEN DOGUN AGIRI
JAKINGARRI BAT (EUSKERARA ITZULPENA DA):

JAURGO-AGERPIDIA

Euskal-erriari:

Euzkadi'ko Jaurlaritza'k 1936'gaáenean Agiñe'tar Joseba Andoni jaunaren lendakaritzaz jayo zanak, ordutik ona eten gabe Euzkadi'ren azkatasun eta eskubideen aldeko lanean jaáaitu du guda ta eáiketari buruzko aldakuntza aundien artean. Gaur bere eñiari dei-egiten dio beáiro. Arestian, azken iáebete bi auetan bere jaurkide bien gale-
ra mingotsa izan du: Gomez de Segura'tar Paulino jaur-
lari jauna ta Lendakari-ordekoa zan Landaburu'tar Fran-
tzeska Xabier jauna. Zenduak ditugun jaun bi auengana-
ko eginbidez, gogoz egiten diegu berak irabazi zuten
gorazaáe biozkoñena. Agiri au izenpetzen dutenez beñitu-
rik geratu da gure Jaurlaritza, esandako galtzearen ondo-
ren, eta beáizte onen beáia ematean, auxe oáerazi beaá
da lendabiziz: Gernika'n eratutako lenengo Jaurlaritza
erriaren naimenetik sortu zan eta naimen ori zuzendu
zuten eáiketa ta gizarte-erakundeak berak, beren atsikitze
ta laguntzean berebat jaáaitzen dutela.

1945'gaáen urtedanik Eusko-Aolkulari-Batza'k lagun-
duta eta bere inguruan eái-agintzari men dagoiten erakun-
de guziak izanik, Euzkadi'ko Jaurlaritza'k euskaldunen
naimena du bere oñari nagusizat, eta mende-laurden luze
ontan beti azkatasunaren aldeko lanean yardutea jakin du,
bertan bere elburu nagusia baitzan: oñengatik gaur gure
Eái'an sasi-agintaritzaz jaáaitzen dutenek jazokun aundi
guztietan barna izan duten jokeraren aurka beti egon da.

Gure arerioen itsutasuna guzior begietan azaldu zaigu.
1936'gaáenean komunismoaren aurka esi bat jartzeko,
sarkaldeko eñiak fatxista-erakundeak ontzat artuko lukete-
la uste zuten; gero, Ludi'ko guda aundia 1939'gaáenean
asi zanean, fatxistaáek irabaziko zutelakoan zeuden;
amets ori galdu zutenean guziei egokia izango zitzaion
nolabaiteko pakea egingo zala oldoztu zuten, usteltzat
zeuzkaten errikal-agintzale aiek amor-egiteko zeudelako-
tan: azkenez, eta aipa genitzaken beste jazoaldiak ixilik
uztean, Europa eái-agintzearen bidean eratzeko azpegiak
indaá gabekoak zirala uste zuten. Beste jokera izan da
Euzko-Jaurlaritza'rena eta emen gogoratu nai ditugun iru
agirietan, bakoitza bere egunean izanda, zuen izenean
jokera kirmenak artu zituen.

1936'ko uñilaren 7'gaáenean Agiáe Lendakariak, bere
Jaurlaritzaren buru agertzean, Gernika'ko Zugatzaren
azpian, bere eginbidea betetzea zin-egin zuen, bere Jaur-
laritzaren Egitaraua jakinerazten: Gizonaren eskubideak,
erlijioari buruzko azkatasuna, eñizaintza, zuzentza yarei,
gizartearekiko aurerapena, dirutza ta onen irabazpenetara
langiáearen eltzea, beañak edo egokiak izan ditezken oro-
rentzako lanak, nekazariak jabetzera eltzea, lander bizi

diranen jasotzea, zergak gizartearen bidean jartzea, ira-
kaskintza ta kultura-mail guzitarako hideak ororentzat
idekitzea norberaren gaitasuna baño beste baldintzarik
gabe, euskal enderiaren izakera berezia gordetzea, euske-
ra irakaskintzan sartzea, Euzkadi'ren nortasuna ontzat
artu ta bayeztea. Jaurlaritzaren agintzak zeuzkan oñari
oiek, agintza artan zeatzago azalduta ziranak, orduan,
orain eta gerorako, Euzkadi'n bizi bear diran eskubideen
agiri orokara betetzera dute. Bai 1933'gaáeneko aziiaren
6'gaáenean euskaldunak ontzat artu zuten Araudia'z baita
Erkala españararen Lege-batzarak Araudi ori legetzat
onartzeko izan zuen erabakiaz ere, izatez euskaldunak
diranentzat eta Euskaleñi'an bizi-izateko eskubidea lortu
duten españar guzientzat ere egiña izan zan, eskubide ber-
diñen agiri orokar ura.

1945'ko epaiáaren 31'gaáenean, "Bayona'ko Itunbe-
na" Euzko-Jaurlaritza'n zeuden eáiketa ta gizartearekiko
indaá guziek izenpetu zuten. Agiri ortan agertzen diran
azpegiak bost aukerak dira: 1936'ko uztaiáaren 18'gaáenean
bildu ziran eáiketa ta gizarteari buruzko indaáen alkar-
tzea, Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren eratzean agerturik; Eus-
kaleñi'aren egiazko ordezkaria dan Jaurlaritza ortan uste-
on izatea; bein eái-agintzaren beñiro asi-ta, Euskaleñi'ak
yarei azalduko dituen naimenai onartu ta eustea; Eusko-
Aolkulari-Batza eratzea ta España'ko Eri, Alderdi ta
Gizartearekiko erakundeekin, Franko'ren Jaurlaritza edo
bera bezelako beste edozeiñen aurkako gudan jarraitzea,
bide guztietan barna; orobat errikal-agintzaren aurka edo
eñegerik jartzeko sortu ditezken alegin guztien auáean.

1956'gaáeneko iraiáaren 23'gaáenetik 29'gaáeneraño
Paris'en Euskal-Batzaá Orokaña izan zan. Onela esonda-
tu zuen: "Euskal-Batzaá Orokaña'k Euzkadi'ko giza-sail
zañaren irautea zematzen duten auzi gogoáak ikusten
ditu, francotaáen pean jaáaitu beaá baldin badu; eta, yora-
nez beterik, Ludi guziko euskaldunai dei-egiten die,
beaáak diran laguntza ta ekintzearen eske, Euskaleái'ak
bere azkatasuna lortu dezan eta oñela bere biziari eutsi
dizaioken.

"Erabiltzeko dagoen egipenaren auñean, deian bertan
eta esan gabe adierazten danez, arestian eta eái-agintze-
ren bidez azaldutako euskaldunen naimena ageáerazten
duelako, eta Euzkadi'ko Lendakariak jakinerazitako egi-
penen onartzeagatik, Batzaáak, Agiáe jaunak zuzentzen
duen Jaurlaritza, Euskaleñi'aren egiazko agintza bezela
onartzen dutelarik, Eñi'aren azkatasuna lortzeko jokerak
zuzentzen jaáaitzeko, eskuarte egokitatzat ojustatzen du.

"Yarei-jaurgoa bayeztu zuen eái naimenari buruz
beaá dan onartzeagatik, gudariak beren odola ta eáiak
bere nekeak aren jaurgoaren alde ain oparoki eskeiñi
zutela-ta, era berean guda ixilean jaáaitzen duten gizo-
nengatik ere, eta euskaldunen naimen ta alkartasuna
Yarei-jaurgoaren inguruan tinkotu zirala oñen argi dela-
rik, Batzaáak, Yarei-jaurgoaren Araudia, euskal-batasuna,
guda ta eskariaren ikuniña bezela ojustatzen du.

EDESTIA

"Bayona'ko Itunbena izenpetutako batasunaren yago-lea da, bai ta oñari gotoren gañean azkatasun eta eri-agintaritzaz jartzeko naimen biziaren alkartasun biozkora ere."

Beraren erabaki batzuek beste azpegiai buruz arturik izan ziran: pakearekiko; beren burua jauái ta zuzentzeko eái guztien egiazko eskubideai buruz; beste erakunde aundiagoetan biltzekó endeái ta lateáien eskubidearekiko, esate baterako Europa ta Amerika'ko Alkartasunak; eta abaá. Erabaki guztien artean Euzkadi'ko Jaurlaritzak'k auxe nabarierazten du biziki: "euskaldun guztien iñikitzea" bezela, yarei eratua izango dan euskal-bizian Napaáoa sartzeko adierazi ziran "naimen beroak" gartsuki onartzea.

Gero eldu diran eta auáera dijoazen urteetan barna, naiz asmotan naiz egipenetan, Jaurlaritzaz onek eramandako bidea, goikoenetako maiáetan ontzat arturik izan da. 1936'gaáenean argi ikusten etzan eñien azkatasunaren egunetan gaude, enda dala-ta bereizkunderik egiten ez diranetan, bide askorenetik eñian beren esku bizi-izateko mugon egokienetan. Eta ain zuzen auáerapen guzti oiek aintzina eraman dituztenak, "jaurgoan eái-agintzazko bideak daramazkien eáiak" izan dira, orduan Euzko Jaurlaritzak'k oiekin laguntza ortsian bizi nai zuela esan zituenak. Bidezkoa da, lutelestiari buruzko gure egokeragatik, Frantzia'ren izena emen aipatzea, bere aldetik, esandako azkatasun oietan ainbeste lan egin duelako. Ezin ixil dezakegu berebat Yesukristo'ren Eliza'ko Doipurua izan dan XXIII'gañen Yon'en izena; gure aberkideen, geronen eta naimen onaren gizon guztien gogoan oáen sakon eldu diran agiriengatik.

Guzti oáek areago tinkotzen du Euzko-Jaurlaritzaz bere jokera, bai ta jokera ori Euskaleái' aren izatearekin zuzen biltzeko dala adierazten era; Euskaleáia'k bere aldetik badaki Jaurlaritzaz bere bidetik dijoala, eta oáengatik eztu entzun nai berarengandik alde egiteko eltzen zaion esondatzerik. Orixe azaltzen dituen ongienik il diran jaurliaren iáetaetara miña ta miáaka agertu diran gizalagunek eñiaren beroa zeramatelarik.

Ementxe amai lezakean Jaurlaritzaz bere deia, eta oñela egingo luke euskal baranoari bakaáik so-egingo balio. Baña bearezkoa zaio, gure auzia España'ko eriketa barnean ere sarturik dagoelako, ortik eldu dakizkioken ondorioak zeintzuk izan ditezken begiratzea. Gaur España'n dagoen jaurgoa iraulerazteko eri-agintzaleak diran espáñarekin alegiñetan ari-izateko, lenengo ordutik gertuta egon gerala-ta, oietxek "euskal-auzi"ari ematen dioten arera gogoan beaá dugu izan beti. "Euskal-auzi" oáek auxe adierazten du: tarterik eta uzterik gabe, eta oñen garbi azaltzen dan gure enda-izaeraz, bizirako gure Eái'aren eskubidea; gure izaera ori gizartearen buruzko galgan oáen nabarmengaáia dalarik eta eáiketarekiko eñi-agintzari aspaldidanik oñen atsikia izatean.

Ezin aá dezakegu euskaldunok eái-agintzearen bidean zear abiatzen danean batik bat, utzi eziña zaigun eskubide oñen onartzea, beste jokera ala nayagotzearen atzean jartzea; alako jokera susmogaáiak bezela agertuko zaiz-

kigu beti. Beste egitekorik, gurean, buru gabeko ta uler-gaitza izango litzaken jokabidea izango zalako.

Orain eta gerorako, eñi-agintzaren aldeko gudan alegiñetan gaude. Bertan, bera jartzeko izan ditezken zentzun, epe ta arteko erak, edozein izanik, oáelakoak baldin badira ta ura jaái arte, guk ez dugu onartzen ez zai-egoterik ez eta iñungo uzterik ere, Euzkadi bera dan bezela bere eri-agintzazko eskubideak erabiltzera eramateko artu dugun agintzan. Orixe baita, ziuá-ziuñ gaude, gure aberkideentzat eta geronentzat, utzi ezin ditekela elburu baten eskaria; elburu ortaz ezin onar ditekela eáiketari buruzko alkar-terik, eáiketarekiko yarei-jaurgoan dagoen auzi ertsiaz, euskaldunak adierazitako naimena ontzat artzeko itza emango ez duen iñorekin.

España osoan eri-agintzaren bidea idekitzeko egingo dan alegin guztiaren alde gertu dalarik, Euzkadi'ko Jaurlaritzaz.

Auxe ADIERAZTEN DU:

Euskaleñia askatzeko egin ditezken gudan eta edozein moduzko eáiketarekiko egipenetan auáera ta aulezirik gabe jaáituko duela; eten gaberik eta, legezko Jaurlaritzaz izatean, Eái'an bertan jaái arte; edo beste aldetik, Eñi'ak bere buruari yareiki eman nai-izango duen jaurgoaz Jaurlaritzak'k eái-agintzaren bidez Eái'ari galdetuta, onek gerorako erabaki ditzaken beste erakundeak jaáiak izan arte.

1963'ko uztaiáaren 6'gaáenean

EUZKADI'ko JAURLARITZA

Leizaola'taá Yosu Mirena

LENDAKARIA

Erezola'tar Yoseba

LENDAKARI-ORDEKOA

Nardiz'tar Gonzalo, Garbisu'taá Ambrosio, Iglesias'tañ Yon

JAURLARIAK

GABON ZORIONTSUA

ETA

URTE BARRI BAKETSUA

2002n. urte onen azkenerantza goazela

Egun zoriontsuak opa dautsuez

Irakurle guztioi eta inguruan bizi zarenoi

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK

ETA ZER ALDIZKARIKO LANGILLE

GUZTIAK

ZORIONAK!!!ZORIONAK!!!ZORIONAK!!!

ISRRAEL ERRIA

Israel erria jota egoan ainbesteko gogorkeriz. Batera begiratu, nai bestera begiratu ez eben ikusten, iñundik, eurentzat etorkizunik.

Ejitoarra il ondoren, Moises bildurrez beterik geratu zan. Faraon aren billa asi zan, baiña Moisesek Madiango lurraldeetara iges egin al izan eban.

Emen, jazoerak gero ta gogorrigo doaz Israeldarren-tzat. Areen negar ta samintasanuk zeruko ateetan dei egiten dabe, Jaungoikoak nai dau, zuzentasunean, bere erriak jokatzea. Egillea bere aldetik gertu dago erri min-duari laguntzeko, ta erbestean dagon bere aukeratuari dei egingo dautso. Israel erria geiago eziñean, deika dago Faraonen saminatasunpean. Zoaz askatzera. Jopukeritik nire erria atera gizu, nik bialtzen zaitut.

Moisesek bere gogape edo kontzientzia deika dauka Jaungoikoaren esanera, baiña bildur da. Alperrikoa dala uste dau arazo orretan sartzea. Etsi-etsian errezoi baten billa dabil eginbear ori bertan bera izteko. "Itz egiten ez dakiala", "berba artua daukala...". "Ni ez naz gauza ortarako".

Beste bat bialdu dagiala eskatzen dautso Jaungoikoari. Beste gizon bat trebeagoa ta almindun egokiago bat bialtzeko eskatzen dautso. Bene benetan, Moises bildur da. bere anaia ez dautsoela entzungo ta arean gitxiago Faraondar etsaiak.

Orrez gaiñera, Israeldar jopuen zaindari bat il ebalata, ertzaiña alderdi guztietatik billa jabilko ilketaren kontuak eskatzeko Faraonen aginduz. Urt, 2, 15. Arazo guzti au egin al izateko, "flor naz ni iñoan". Naita ortarako gogoa bizkortu-arren ta norbere bizi il-zorian jarteko gertu egon, alper alperrik, izango litzakela uste dau. Israeldarrak ez dautsoe sinistuko ta jaramonik be ez dautsoe egingo, Jaungoiko ez jako agertu-ta. Urt, 4, 1.

Ejitoarren alderdira ba-goaz, oneik su-goritan egozan, curen anaia il eban ezkerro. Ta Moisesek, ondo, ekian, aren gorrotoa ilkorra zala ta jende aren artean sartzea alperrekoa izango zala ikusten eban bere baitan,... Gizon bat otso artera, erdi erdira, joatea lez zan beretzat. Alan bere,... zeuk nai dozuna bialdu egizu... eskatu eutson Jaunari...

Moisesek al daben giñoan, atzerantz egiten dau, baiña kezka aundi bat asmetan dau bere barruan. Bildurra

dauka batetik, geiago eziñean, ta bestetik Jaungoikoaren deia. Bildurrak ezetz dirautso, ez dozu lortuko asmo aundi ori ta Jaungoikoaren agindua askoz indartsuagoa da, ta orain, ezin da geiago auzartu ezetz esaten.

Ta Jaungoikoak dirautso: `joan egin bear dozu. Neuk bialtzen zaituz"... "Ez bildur izan. Zugaz neu egongo naz..." Ta orrez gaiñera garaitzaren ezaugarri lez esan eutson: "Israel askatuten dozuenean, mendi onen gaiñean gurtuko dozue zuen Jaungoikoa".

Israelen askatasuna, iñundik iñora, ez eben nai Faraon ta bere lagunak. Au da gizonak dauken erriak zapaltzeko garramura, iñoren kontura aundia izan nai, zapaldui bearra eragin, norbera, ondo, bizi, besteei errua bota, norbere gaiztakeriak zuritzeko... munduko jokabidea, ondo, agertu da emen. Ta burubide maltzur ta oker oneik zuzentzen ez diran bitartean, bakerik ez da izango gizadian.

Baiña Jaungoikoaren gogo ta indarra oroz goitik dagoz. Erriaren nekeak, negarrak ta samiñak min emoten dautsoe. Bere gogoa da lotsagarrizko joputza aretatik bere erri maitea askatasunera ateratea ta anaitasunezko erri bat sortzea: "Gogorrean izan ezik ez dautzue itziko urteten buru biotz gogorkeriagaitik, baiña zigortu egingo dot Ejipto ta orduan itziko dautzue urteten".

Jaungoikoaren indarra ta argitasuna ba-doaz Israel-dar ta Moises'en artean sartzan. Gizon onek zabaldu dautsoz belarriak Egillearen berbeari, lengo bildurrak iges egin dabe gizon onen biotzetik. Benetan, gogor, egin jakon burrukaldi ori menperatzea. Baiña zerutar eskua ikusi ondoren, erabagia osoa izan zan, aurrerantzean zan guztia eskeiniko eutson Israelgo erriaren askatasunari.

SOLOZABAL'dar Paulin



BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hileru,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²

www.bbk.es